



ARGIBIDE ORRIA

EGONKORTZEKO PROZESUA: LEHEN PROBAREN A ZATIA

Arretaz irakurri ondorengo azalpenak. Garrantzitsuak dira proba behar bezala egin ahal izateko.

EZ IDATZI EZER ERE, MEGAFONIAK HASTEKO ADIERAZI ARTE

- Ikus ezazu ondorengo **materialak** badituzun:
 - ✓ Kartazal handi bat
 - ✓ Kartazal txiki bat
 - ✓ Identifikatzeko txartel bat
 - ✓ Azterketa-orriak
 - ✓ Zure jakintzagaiari dagokion gai-zerrendaHorietako ezer falta bazaizu, epaimahaikoei eskatu.
- Orain egingo duzun azterketa, **egilea nor den jakin gabe zuzenduko da**, eta hori dela eta, oso garrantzitsua da erantzun-orrietan zure berri emango duen daturik ez jartzea: izena, nortasun agiriaren zenbakia, izenpea... arau hori betetzen ez baduzu, ariketa baliorik gabe utziko da.
- Megafoniatik adierazten dugunean, bete itzazu **identifikazio-txarteleko datuak**: lanpostua (ESPEZIALITATEA), izena eta bi abizenak eta NANA. Ez idatzi ezer ere orriaren goiko eskuin aldean ageri den laukian (zenbakia jartzen duen lekuan). Txartela izenpetu eta kartazal txikian sartu. Kartazal txikia itxi, eta handiaren barruan sartu; handia zabalik utzi behar duzu.
- Eman dizkizuten **erantzun-orrietan** egindako ariketak baino ez dira hartuko kontuan. **Saia zaitez argi eta garbi idazten. Orriaren alde biak erabil itzazu idazteko.** Orri gehiago behar badituzu, epaimahaikoei eskatu. Ez ahaztu: orri bakoitzak bere zenbakia izan behar du, eta ariketa amaitu ondoren, jar ezazu —lehenengo orriaren laukian— zenbat orri dituen zure azterketak. **Ez izenpetu eta ez jarri inolako identifikazio-markarik zure azterketan.** Proba amaitu eta gero, besoa jaso; epaimahaiko kideren bat joango da zuregana, eta pertsona hori zurekin dagoela, zure azterketaren orri guztiak kartazal handian sartu, itxi eta epaimahaiko kide horri eman.
- Deialdiaren oinarrietan esaten denaz bat, proba hasi baino zertxobait lehenago **zozketa** bidez gai batzuk aukeratuko dira, eta zuk horietako bati buruz idatzi beharko duzu.



Gai Kopurua	Espezialitatea	Azalpenak
75	<i>Fisika eta Kimika</i>	<i>Zozketan ateratzen diren lehenengo 5 gaietatik bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>
	<i>Biología eta Geologia</i>	
	<i>Euskara eta Literatura</i>	
74	<i>Informatika</i>	<i>Zozketan ateratzen diren 74a arteko lehenengo 5 gaietatik (74a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>
72	<i>Geografía eta Historia</i>	<i>Zozketan ateratzen diren 72a arteko lehenengo 5 gaietatik (72a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>
	<i>Gaztelania eta Literatura</i>	
71	<i>Teknologia</i>	<i>Zozketan ateratzen diren 71a arteko lehenengo 5 gaietatik (71a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>
	<i>Matematika</i>	
	<i>Ekonomia</i>	
	<i>Filosofia</i>	
70	<i>Musika</i>	<i>Zozketan ateratzen diren 70a arteko lehenengo 5 gaietatik (70a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>
69	<i>Ingelesa</i>	<i>Zozketan ateratzen diren 69a arteko lehenengo 5 gaietatik (69a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>
68	<i>Hezkuntza-orientazioa</i>	<i>Zozketan ateratzen diren 68a arteko lehenengo 5 gaietatik (68a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>
	<i>Latina</i>	
65	<i>Gorputz Hezkuntza</i>	<i>Zozketan ateratzen diren 65a arteko lehenengo 5 gaietatik (65a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.</i>

6. Azterketaren hasieran **zehaztu zein gai aukeratu duzun**, zenbakia jarrita.
7. Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANA, ondo ikusteko lekuan, eta isil-isilik egon behar da. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko dute. **Telefono mugikorra aldean baduzu, deskonektatu, mesedez, eta erloju adimenduna eramaten baduzu (smartwatch edo antzekoak), kendu eta gorde.** Mahai gainean, eman dizuten dokumentazioa eta NANA, ezin duzu besterik izan.
8. Bertaratu izanaren **egiaztagiririk** behar baduzu, azterketa amaitutakoan eskatu epaimahaikoei.
9. Probaren **iraupena: 2 ordu.**
10. Azterketaren **lehen 15 minutuetan** zehar inor **ezin izango da azterketa-gunetik atera.**

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK.